

IKASKETETARAKO BEKEI ETA LAGUNTZEI BURUZKO POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas



Posizionamendu honen zirriborroa CREUPen Exekuzio Batzorde Handiagotuak proposatu eta idatzi du, eta batzorde horrek 2020ko uztailaren 20an Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan egindako 67. Batzar Nagusi Arruntak eman zion onespena.

AURKIBIDEA

1. Contexto	2
1.1. Evolución del modelo actual	3
2. El modelo que queremos	4
2.1. Objetivos del modelo	4
2.2. Presupuesto y financiación	5
2.3. Cuantías	6
2.4. Criterios académicos	6
2.5. Criterios económicos	7
2.6. Discapacidad y violencia de género	8
3. Participación del estudiantado	9
4. Conclusión	10



1. Testuingurua

Estatuko beken gaur egungo eredia ez da ia batere aldatu 2012az geroztik. Unibertsitate Publikoetako Ikasleen Ordezkarien Koordinakundeko kideok (CREUP) uste dugu eredu hori zaharkitua dagoela, eta ikasleen kolektiboek eta Ministerioak aztertu egin beharko luketela, eredia aldatu eta gaur egungo errealitatera egokitzeko.

Azkeneko zortzi urteetan, izugarri aldatu dira ikasleen kolektiboaren beharrak; beken eredia, aldiz, aldaketarik gabe, gizartearen aurrerabideari egokitu gabe gelditu da, eta kalte ekonomiko eta sozial larriak eragin dizkie ikasleei. Ondorio txar horiei nolabaiteko irtenbidea ematearren, behar baino lehen hasi behar izan dute zenbait ikaslek lanean lan merkatu ezegonkorrean, beste zenbaitek —ahal izan dutenek— laguntza eskatu behar izan diete familiakoei, eta beste zenbaitek ustekabeko egoerei autonomia-erkidegoek laguntza gisa eskainitako adabaki finantzarioez baliatu behar izan dute.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren 14/2012 Errege Dekretu-legeak, Hezkuntzaren Esparruan Gastu Publikoa Arrazionalizatzeko Urgentziazko Neurriei buruzkoak, asko igo zituen autonomia-erkidego gehienen prezio publikoak, eta, beraz, are gehiago handitu zen erkidegoen arteko aldea prezio publikoei dagokienez. Horregatik eta bekak emateko irizpide akademikoak zorrotz direlako, unibertsitatea utzi behar izan dute milaka ikaslek azkeneko urteotan, eta, beraz, hautsi egin da unibertsitatean sartzeko eta ikasten segitzeko aukera berdintasunaren eredia.

Horiek horrela, posizionamendu honetan finkatu nahi dugu unibertsitate publikoetako ikasleok eskatzen dugun eredia. Posizionamendu hau ez da ulertu behar oraingo sistema hobetzeko eskaera gisa, ez eta Europako ereduetara egokitzeko proposamen gisa ere; aitzitik, gure beka sistemak bete beharreko gutxieneko baldintza da, ikasleei modua eman diezaien Espainiako Unibertsitate Sistemari sartzeko eta ikasten segitzeko.



1.1. Oraingo ereduaren bilakaera

Estatuko Administrazio Nagusiaren Ikasketetarako Beken eta Laguntzen Sistemari buruzko gure txostenean jaso dagoenez, 2012an beka eredu berri bat ezarri zuen Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, aurreko sistemarekin bat ez zetorrena. Ordura arte, aldatu egiten zen Hezkuntza Ministerioak ematen zituen beken eta laguntzen aurrekontu-partida; izan ere, beka eskuratzeko eskubidea baldintza ekonomiko eta akademiko jakin batzuk betetzen zituzten ikasleek zutenenez, laguntza eskatzen zuten ikasle kopuruaren araberakoa zen aurrekontua.

Orain, beka sistemaren finantzaketa handitu egin den arren, ez dator bat BPGarekin. Bekadunen kopurua ere handitu egin da, eta unibertsitateko hezkuntzako exekuzioa edo horren baliokidea, berriz, 2012an baino txikiagoa da. Hau da, asko murriztu da bekadun bakoitzeko inbertsioa, zeren eta oraingo sistemak homogeneizatu egiten du ikasle bakoitzarentzako zenbatekoa bekadunen kasuistika sozioekonomikoa kontuan hartu gabe.

Ikasle bakoitzeko batez besteko zenbatekoa txikitu izanaren beste arrazoietakoa bat eskakizun akademikoak dira. Gaur egun, gainera, aurrekontu finko bat izaten da beketarako, eta ez aurrekontu ireki bat, beka eskaerari eta ikasleen beharrei erantzunen diena eta datorren urteko gastu soberakina aintzat hartuko duena. Hori dela medio, eredu aldatu zenetik, dezente ugaitu dira modu eksklusiboan matrikularako laguntza jasotzen duten ikasleak. Esan liteke Gobernuak bultzatutako aldaketa horrek are gehiago urratu duela hezkuntzan —kasu honetan, unibertsitateko hezkuntzan— sartzeko eta ikasten segitzeko aukera berdintasunaren printzipioa.

2020an, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak eta Unibertsitateen Ministerioak aldaketa partzial batzuk onetsi zituzten Bekei buruzko Errege Dekreturako: atalaseak eguneratu, eta eskakizun akademikoak murriztu zituzten besteak beste. Aurrerapausoa izan da hori, jakina, baina ez da nahikoa unibertsitatean sartzeko oztopoak erabat kenduko dituen beka eredu lortzeko.



2. Zer eredu nahi dugun

2.1. Ereduaren helburuak

Unibertsitateko ikasleen errealitate sozioekonomikoak erakusten digu gero eta zailagoa dela denbora osoz ikastea eta behar ekonomikoei erantzutea. Horri ikasketen ondoriozko kostuak eta hezkuntzako politiken ezegonkortasuna gehitzen badizkiogu, zaildu egiten da unibertsitatean sartzeko eta ikasten segitzeko aukera.

Hori dela eta, honako eskaera hauek egiten ditu CREUPek:

- Estatuko beken eta laguntzen helburua izan dadila unibertsitateko ikasketen gastuak ez ezik ikasleen aukera berdintasunak dakarren kostua ere ordaintzea, Estatuaren lehentasuna izan behar baita unibertsitateko doako hezkuntza bermatzea.
- Beka soldaten figura erabiltzen hastea. Baliabide bat da errenta baxuko ikasleei modua emanen diena soldata bat edukitzeko eta, horri esker, ikasten lanaldi osoz aritzeko. Sistema horrek hobetu egingen luke ikasleen errendimendua, gauza izanen bailirateke ikasteko eta bizitzeko kostuari aurre egiteko.
- Estatu itun bat egitea, unibertsitateko ikasleen beharrei erantzunen dien beken eta laguntzen politika bat ezartzeko, oinarrizkoa baita unibertsitateko hezkuntzarako eskubidea.
- Autonomia-erkidegoek emandako beken eta laguntzen helburua izan dadila Estatuaren eredia osatzea, eta unibertsitateko ikasketen zeharkako kostuak ordaintzea, etxebizitza eta garraioa besteak beste.
- Autonomia-erkidegoek ustekabeko egoeretarako bekak eta laguntzak eman ditzatela.



2.2. Aurrekontua eta finantzaketa

Gorago adierazi bezala, ikasketetarako beken eta laguntzen sistemak unibertsitatean sartzeko eta ikasten segitzeko oinarrizko eskubidea gauzatzen du, eta hori galarazten duten oztopo sozioekonomikoak gainditzen ditu, prezio publikorik gabeko unibertsitate batekin eta prestakuntzaren ondoriozko kostuei aurre egiteko laguntzekin. Erreferentziatzeko estatu gisa, ikasleen etorkizunean inbertitu beharra dago, eta horren ondorioz unibertsitateek ez dute aurrekontuaren parte bat sakrifikatu behar Estatuaren beken eta laguntzen sistemaren hutsuneak betetzeko. Era berean, gure ustez, Estatuaren beken sistemaren bidez bete nahi diren helburuez bestelakoak izan beharko lirateke autonomia-erkidegoen beken eta laguntzen sistemarenak.

Bestalde, CREUPek azken urteotan adierazi duen kezkarik garrantzitsuenetako bat da ikasleak itzuli egin behar duela lortutako beka baldin eta ikasturtean matrikulatutako ECTSen % 50 gainditu ez badu. Egoera hori are larriagoa da unibertsitateko iraupen-arauen arabera ikaslea behartuta badago gutxienez 60 ECTS kreditutan matrikulatzera.

Hori dela eta, honako eskaera hauek egiten ditu CREUPek:

- Aurrekontu-partida batek ez dezala mugatu laguntzen kontzesioa. OCDEko mailetaraino igo beharko litzateke gutxienez oinarrizko partida, eta ikaslearen benetako beharren arabera izan beharko litzateke azken zuzkidura.
- Modu eraginkorragoan esleiri eta ordain daitezela bekek, ikasle askok diru hori beharrezkoa baitute ikasturtea hasteko. Ez dago oztopo ekonomiko handiagorik geroago iritsiko den diru bat behar izatea baino.
- Autonomia-erkidegoek eta/edo ministerio eskudunak unibertsitateei konpentsa diezaietela ikasle bekadunak matrikulatzeko prezio publikoen % 100.
- Ez dadila ezein egoeratan eskatu beka itzultzeko, unibertsitateko hezkuntzara sartzeko ematen baita beka, eta ez mailegu gisa.
- Informazioaren tratamendua homogeneizatzea, administrazio kudeatzaileek eta autonomia-erkidegoek errazago transferi dezaten informazioa beken baremora.



- Komunikazio handiagoa egotea Zerga Agentziaren eta bekek kudeatzen dituzten unitate eta agentzien artean.

2.3. Zenbatekoa

Zenbatekoen egungo banaketak ez ditu asetzen ikasleen benetako beharrak. Lehenik eta behin, ez da bereizketarik egiten probintzien artean, eta horrek desparekotasun handia sortzen du, etxebizitzaren zenbatekoari dagokionez bereziki, alokairuaren kostua ez baita berbera Espainia osoan. Gainera, edozein ikaslek unibertsitatean ikasi ahal izanen duela bermatzearen Estatuko erakundeek erabilitako tresna dira bekek. Hala ere, helburu hori betetzetik urrun daude beken zenbateko batzuk.

Hori dela eta, honako eskaera hauek egiten ditu CREUPek:

- Beken, Ikasketetarako Laguntzen eta Errendimendu Akademikoaren Behatokiak azter dezala beken zenbatekoak handitu behar ote diren, ikaslearen jatorrizko probintziaren eta unibertsitatearen probintziaren arteko KPIaren probintzia arteko bariazioaren arabera.
- Berreskura daitezela hiri-garraioaren eta joan-etorrien kontzeptuak beketan.
- Azter dadila ministerio eskudunaren mendeko zerbitzu publiko batzuk ezartzeko aukera, hala nola unibertsitate-egoitzak, hiri-garraioa eta kultura-eskaintza unibertsitate publikoetako ikasleen beharrak asetzeko.
- Beken bikaintasunari lotutako aldagaia kentzea.
- Sari, lehiaketa edo antzekoengatik jasotako 1.500 euroko gehieneko zenbatekoa 2.500 euroraino igotzea pixkanaka.

2.4. Irizpide akademikoak

Esperientziak erakutsi digu ikasleen errendimendua ez dagoela soilik lotuta beren egoera akademikoarekin, baizik eta eragina dutela, baita ere, testuinguru familiar eta sozialak eta Estatuko lurraldeen arteko desberdintasun ekonomikoek. Gainera, egoera ekonomikoa da unibertsitatean ikasten hasteko eta segitzeko funtsezko faktoreetako bat; izan ere, errenta txikiena duten ikasleek dituzte arazo gehien —eta horiek dira



Estatuko beken onuradun nagusiak— egungo irizpideen arabera errendimendu akademiko ona izateko. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu irizpide akademikoak kontuan ez hartzea beka emateko.

Hori dela eta, honako eskaera hauek egiten ditu CREUPek:

- Bekak lehenbiziko eta bigarren matrikuletan ematea, ikasle bakoitzaren errealitate sozioekonomikoan oinarritutako irizpideen arabera.
- Lanaldi partzialeko ikasleek ere aukera izatea matrikularako beka lortzeko, gainerako ikasleek bezala, matrikulatutako ECTS kopuruaren proportzioan.
- Administrazio publikoak beka lortzeko gutxieneko batez besteko nota eskatzen badu, ez dadila sekula izan 5 baino handiagoa; hala, Goi Mailako Hezkuntza Sistemaren gainditze-notara egokitua egonen da.
- Ikasketa erdipresentzialetan edo urrutiko ikasketetan matrikulatutako ikasleek gainerako ikasleen laguntza berberak izan ditzatela, haien baldintza sozioekonomikoak kontuan hartuta.
- Ez dadila bereizketarik egin graduen eta gradu bikoitzen artean; bestela, gradu bikoitzetako ikasleek ezin izanen dute matrikularen zenbateko osoa jaso. Beraz, beharrezkoa da kasuistika hori jasotzea, edozein egoera sozioekonomikotan dauden ikasleek izan dezaten aukera halako ikasketak egiteko.
- Ikasten zein urtetan hasi ziren kontuan hartu gabe izan dezatela ikasle guztiek aukera beka jasotzeko.

2.5. Irizpide ekonomikoak

CREUPen ustez, ikasleen egoera sozioekonomikoa izan beharko litzateke irizpide bakarra beka eman edo ez erabakitzeko. Gainera, laguntzak ez lirateke lehenbiziko matrikularako soilik izan behar. Kontuan hartu behar dira, halaber, ikasleak ikastetxera joateko distantzia- eta mugikortasun-aldagaiak, Espainiako Unibertsitate Sistemaren sartzeko eta ikasten segitzeko aukera-berdintasuna bermatzeko.



Hori dela eta, honako eskaera hauek egiten ditu CREUPek:

- Errenta-irizpideak aurreko urtekoak izaten direla kontuan hartuta, har dadila aintzat salbuespen gisa familia-unitate batek galera ekonomikoren bat izan lezakeela urtean zehar.
- Familia-errentaren atalaseak berrikusi behar dira egungo errealitate sozialera egokitzeko, eta muga zabalagoak ezarri I. atalaseari, zeina pobrezia-aren atalasetzat jotzen baitu INEk —arazo ekonomiko handienak dituzten familiak sartzen dira hor—.
- Ikasketa erdipresentzialetan edo urrutiko ikasketetan matrikulatutako ikasleek gainerako ikasleen laguntza berberak izan ditzatela, baldintza sozioekonomikoak kontuan hartuta.
- Familia-unitateak birplanteatzea, orain daudenek ez baitute egiatan adierazten eskatzaileen egoera.
- Autonomoen diru-sarrerak kontatzeko modua aldatzea. Orain, besteren konturako langileei fakturatutako guztia hartzen zaie kontuan.
Autonomoen benetako egoera, ordea, oso bestelakoa izaten da, eta, beraz, lanbidetik lortzen dituzten etekinak soilik egotzi beharko litzaizkieke.
- Ondarea kalkulatzeko, ez dadila kontuan hartu PIVE planak eta/edo bestelako laguntzak eskuratu izana (alokairua edo mantenua ordaintzekoak, zenbait motatako laguntza sozialak edo dirulaguntzak).

2.6. Desgaitasuna eta genero indarkeria

Gaur egun, % 65etik gorako desgaitasuna dutenek soilik eska dezakete matrikulatutako kredituen % 50erainoko murrizketa eta jasotako zenbateko guztien % 50eko igoera (matrikularena izan ezik); hortaz, ez dago bermatua unibertsitateek ez dituztenik alde batera utziko desgaitasun txikiagoa izanagatik zailtasun nabarmenak dituztenak.

Bestalde, nahiz eta egia den beken urteko deialdietan genero indarkeriaren biktimak kontuan hartzen direla, errege-dekretuan kontzeptu hori ez dago jaso, eta, beraz, ezin da ziurtatu aurrerantzean mantenduko denik genero indarkeriagatiko zenbatekoa.



Gainera, dokumentazio pila bat eskatzen da —eta dokumentazio ez-praktikoa gainera— deialdiaren zenbatekoaren parte hori eskuratzeko; izan ere, aurreko urteetan errendimendua txikitu dela egiaztatu behar da, eta gutxienez 30 kreditutan matrikulatu behar da, edo ikasturte baten erdian titulazio bikoitza izanez gero. Hori dela eta, kaltegarria da azkeneko ikasmilako ikasleentzat.

Hori dela eta, honako eskaera hauek egiten ditu CREUPek:

- % 33ra murriztea osagarri horiek eskuratu ahal izateko desgaitasunaren gutxienerako ehunekoak.
- Muga burokratikoak murriztea eta arintzea, eta aurreko urteko errendimenduaren kontzeptua kentzea.
- Genero indarkeriaren zeharkako biktimatzat har daitezela familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiak, eta ez bakarrik seme-alaba adingabeak.

3. Ikasleen parte-hartzea

Gure ustez, ikasleek parte hartu beharko lukete bai beken eta laguntzen eredua, bai atalaseak, irizpideak eta zenbatekoak eguneratzearen urtero onesten diren errege-dekretuak idazteko eta onesteko prozesuan, horretarako eratutako organoen bidez.

Hori dela eta, honako eskaera hauek egiten ditu CREUPek:

- Bete dadila Beken, Ikasketetarako Laguntzen eta Errendimendu Akademikoaren Unibertsitate Behatokia sortu zuen 1220/2010 Errege Dekretuaren 4.5 artikulua (2010eko urriaren 1ekoa), hau da, egin daitezela osoko bi bilkura urtean.
- Beken, Ikasketetarako Laguntzen eta Errendimendu Akademikoaren Behatokiaren azterlanak planteatzeko orduan, aldatu dadila organo horren barne-araudia CREUPek eta unibertsitatearekin lotutako beste elkarte esanguratsu batzuek ere parte har dezaten entitate horretan, emaitzak



adierazgarriak eta erabilgarriak izan daitezen ikasleen egungo benetako egoerarako.

- Bete daitezela Ikaslearen Estatutuaren 41.1 eta 51k artikulua. Artikulu horien bidez, Estatuko Unibertsitate Ikasleen Kontseiluari eskumenak ematen zaizkio ordezkariak izan ditzan eta parte har dezan Estatuko ikasketetarako beka eta laguntza programen diseinuan, bai eta ikasleei beka eta bestelako laguntzak emateko irizpideak finkatzeko prozesuan ere.

4. Ondorioa

Dokumentu honetan azaldutako neurriak ezinbestekoak dira egoera sozioekonomikoagatik oztopo ugari dituzten ikasleek aukera izan dezaten unibertsitatean berme guztiakin ikasteko. Hori dela eta, beken politikan eskumena duten ministerioari eta agintariei eskatzen diegu kontuan har dezatela ikasleen posizionamendua, bidezko beka eredu bat ezartzeko.